
Euskal AEko familia-etxeetan, lautik hiruk 4 edo 5 gela dituzte; alegia, 3 logela, egongela bat eta sukaldea. Batez bestez, 1,4 bainugela dute. Ia etxebizitza guztiek dute bainugelarik (%99,3k).

Hiru familia-etxetatik bik dute igogailurik eraikinean (%71,6), zeina den 2011ren aldean ehuneko 3,3 puntuko hazkundera. Lurraldeetan Bizkaian hazi da gehien, ehuneko 3,7 puntuz.

Gehitu da pertsona bakar edo biko etxebizitzaren proportzioa

2016an familia-etxeetan pertsona bakar bat bizi zen kasuen %27,8tan, eta bi pertsona %29,7tan, zeina den %3ko gehikuntza pertsona bakar edo biko etxebizitzaren kopuruan 2011ren aldean. Etxebizitzaren %1,7tan bakarrik bizi ziren sei pertsona edo gehiago.

Lurraldeetan, azpimarratzekoa da Arabako kasua pertsona bakarreko etxebizitzaren proportzioan, %30,4; Bizkaian diren etxebizitzaren erdietan baino gehiagotan bi edo hiru pertsona bizi dira (%52); azkenik, Gipuzkoan nabarmentzen dira etxebizitzak non 4 edo 5 pertsona bizi diren (%21,7).

Eskualdeetan, Arabako Mendialdean (%43,7) eta Arabako Ibarretan (%34,5) diren pertsona bakarreko etxebizitzaren proportzioak dira azpimarragarri. Bilboaldean, Arabako Kantaurialdean, Arabako Lautadan eta Donostialdean familia-etxebizitzaren heren batean bi pertsona bizi dira. Beste muturrean, Arabako Ibarretan (%3,4) eta Arabako Errioxan (%2,8) daude sei bizilagun edo gehiagoko etxebizitzaren portzentajerik handienak, oso handiak ez badira ere.

Informazio gehiagorako:

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz